# “aUKeraON”, bigarren eskuko artikuluen merkatua

**IZENA EMATEA**

18 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte salmenta edo truke-postuetan.

Salmenta-postu batean parte hartu ahal izateko, “IZENA EMATEKO ORRIA” bete behar da; www.uribekosta.eu helbidean argitaratuta dago inprimakia.

Eskari-orriak posta elektronikoz (ekogune@uribekosta.org) edo faxez (94 676 28 72) bidal daitezke antolaketara, edo, nahi izanez gero, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko bulegoetara eraman (Gatzarriñe 4, Sopela) 09:00etatik 14:00etara, web gunean argitaratutako epera arte.

Jasotako eskari-orriak aztertu ondoren, www.uribekosta.eu web-orrian argitaratuko da parte-hartzaileen zerrenda, (eskari-kopurua postu-kopurua baino handiagoa bada, postuok zozketa bidez esleituko dira). Antolaketa, bestalde, parte-hartzaileekin, posta elektronikoz jarriko da harremanetan.

Herriaren arabera, postu ezberdinak esleituko dira.

Postuak esleitzeko, lehentasuna izango dute Uribe Kostako udalerrietan (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz) erroldatuta dauden auzotarrek. Baita, aurretik, www.aUKeraon.net orrian alta eman dutenek, eta gero, gutxienez, iragarki bat igo dutenek.

**Izena emateko epea** www.uribekosta.eu web-orrian argitaratuko da**.**

Postu bat esleituta duten pertsonek, merkatura etortzerik ez badute, etorri ezinaren berri eman beharko diote antolaketari (galdu egingo da hurrengo merkatuetarako lehentasuna).

Helbide bakoitzetik, pertsona bakar batek eman dezake izena.

**FUNTZIONAMENDUA**

Saltoki bakoitzerako mahai bat emango da (182x76x 74 zm altuera). Saltoki bakoitzean esekitoki bakarra egon daiteke, eta, mahai osagarriak erabiliz, ezin izango da espazio gehiagorik okupatu. Korridoreek guztiz libre egon beharko dute.

Postua esleitu zaien pertsonek 10:30etan hasi ahal izango dute mahaia atontzen, eta 11:00etarako prest egon beharko dute. Saltokia 15:00 arte irekita egongo da.

Ez da gordeko parte-hartzaileen ibilgailuak aparkatzeko lekurik. Ibilgailuak saltokia dagoen

lekuraino heltzea ez da aseguratuta egongo.

Merkatu-egunean, parte-hartzaileek EKOGUNE informazio-gunera joan beharko dute, eta bertan identifikatuko dira, NAN erakutsiz.

Parte-hartzea doakoa da.

Saldu, oparitu edo trukatzeko jartzen diren artikulu guztiak erabilitakoak izango dira. Merkatuan ezin dira ondoko artikulu hauek aurkeztu: artikulu berriak, stockeko artikuluak, sortutako eskulanak, elikagaiak eta animaliak. Produktuak egoera onean egongo dira. Saltokiaren itxura zaindu beharreko kontua izango da (zamaua eraman beharko da, mahaia estaltzeko). Debekatuta dago produktuak berriro saltzea. Ez dira Ekoguneren ardura izango produktuetan gerta litezkeen kalteak.

Antolaketari lotutako zenbait pertsonak argazkiak aterako dituzte merkatuan, eta horiek erabiliko dira bai jarraipeneko barne-lanak egiteko, bai ekitaldia iragartzeko. Arauak onartzeko izenpearen bidez, parte-hartzaileek baimena emango diote antolaketari ekintza horiek egiteko.

Merkatua amaitzen denean, dena jaso beharko da, lekua garbi utzita. Hondakinik sortzekotan, dagokion ontzira botako dira, gaika sailkatuta.

Merkatua amaitzean, saltzaile bakoitzak salgai jarri dituen artikulu guztiak zerrendatuko ditu antolaketak hasieran emango duen fitxa batean, eta, bertan, zein objektu saldu dituen adieraziko du. Merkatu bakoitza amaitzen denean, ekitaldiko arduradunari emango dio inprimakia, behar bezala beteta. Horrela, baloratu ahal izango dugu norainoko balioa duen ekimen honek hiri-hondakinak gutxitzeko ahaleginean.

Antolaketa-taldekoek merkatutik kanpora bidal ditzakete arauak bete ez edo antolaketako jarraibideei muzin egiten dieten pertsonak. Eta, era berean, neurriko zigorrak ezarri ahal izango dizkiete, adibidez, hurrengo merkatuetan ezin parte hartzea. *(ondoko gai hauetan arreta berezia jarriko da: helbide bakoitzeko eskari bat baino ez izatea, objektu berriak ez jartzea, artikulu-mota eta aurkezteko era, ordutegia betetzea, erabilitako espazioaren garbiketa, datuen egiazkotasuna...)*

# Mercado de segunda mano "aUKeraON"

**INSCRIPCION**

Cualquier persona mayor de 18 años, puede participar en los puestos de venta o trueque.

Para poder participar en un puesto de venta es necesario rellenar la "SOLICITUD DE INSCRIPCION" publicada en www.uribekosta.eu.

Las solicitudes se podrán enviar a la organización al email ekogune@uribekosta.org, por fax 94 676 28 72 o entregar de forma presencial en las oficinas de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, Gatzarriñe 4 Sopela, en horario de 09:00 a 14:00 hasta la fecha que se publique en la web.

Tras comprobar las solicitudes recibidas, se publicará la lista de participantes en la web www.uribekosta.eu (cuando las demandas superen el número de puestos se realizará un sorteo para adjudicar los puestos). Además la organización se pondrá en contacto por correo electrónico con los participantes.

El número total de puestos a adjudicar depende del municipio donde se realice el mercado.

A la hora de adjudicar los puestos tendrán preferencia los vecinos y vecinas empadronadas en los municipios de Uribe Kosta (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela y Urduliz). Y las personas que se hayan registrado previamente en www. aUKeraon.net y hayan subido al menos un anuncio.

**El plazo de inscripción se publicará en la web.**

Las personas que tengan adjudicado un puesto y no puedan acudir al mercado, deberán comunicarlo a la organización (se perderá la prioridad en los siguientes mercados).

Sólo se puede inscribir una persona por domicilio.

**FUNCIONAMIENTO**

Se facilitará una mesa (182x76x 74 cm de alto) por cada puesto de venta. Solo se admitirá un burro o perchero por puesto y no se permitirá la ocupación de más espacio con mesas suplementarias propias. Los pasillos deberán quedar completamente libres.

Las personas que tengan adjudicado un puesto podrán comenzar a preparar su mesa a partir de las 10:30 horas y deberá estar a punto para las 11:00 horas. La atención en el puesto se mantendrá hasta las 15:00 h.

No habrá espacio reservado para el aparcamiento de los vehículos de los participantes. No se

asegura el acceso hasta la ubicación del mercado.

El día del mercado los participantes deben dirigirse, en primer lugar, al Punto de Información de EKOGUNE y se identificarán mostrando el DNI.

La participación es gratuita.

Todos los artículos que se pongan para la venta, regalo, o trueque serán usados. No se pueden presentar artículos nuevos, de stock, manualidades creadas, alimentos y animales para su venta en el mercado. Los productos estarán en buenas condiciones. Se cuidará la presentación del puesto (llevar mantel para cubrir la mesa...). Está prohibida la reventa. Ekogune no se hace responsable de los desperfectos que se puedan ocasionar en los productos.

Personal ligado a la organización realizará fotografías en el mercado que serán utilizadas en labores internas de seguimiento y para la difusión del evento. Mediante la firma de aceptación de las normas, los participantes conceden su permiso a la organización para dichas acciones.

A la finalización del mercado, se procederá a la recogida, dejando el lugar limpio. En caso de generar residuos se depositarán selectivamente en el lugar correspondiente.

Cada vendedor y/o vendedora deberá rellenar una ficha que se proporcionará al inicio por la organización, de todos los artículos puestos a la venta, indicando la relación de objetos vendidos. A la finalización de cada mercado entregará al responsable del evento el formulario debidamente cumplimentado. De ese modo, podremos valorar el potenciar real de la iniciativa en la prevención de residuos urbanos.

El personal del equipo responsable de la organización se reserva el derecho a no permitir la ocupación del puesto o expulsar a aquellas personas que no cumplan las normas o no atiendan las indicaciones de la organización, así como a aplicar penalizaciones, por ejemplo, mediante la no admisión en los siguientes mercados. (*se prestará especial atención a que no haya más de una solicitud por domicilio, que no ponga a la venta objetos nuevos, al tipo de artículos y su presentación, el respeto al horario, la limpieza del espacio utilizado, la veracidad de los datos...)*